

**2002KO APIRILAREN 18AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BILERAKO AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hemezortzia

HILABETEA: Apirila

URTEA: Bi mila eta bira

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Jon Jauregi Bereziartua jauna

BILDUAK: Patxi Plazaola Muguruza
Ana Isabel Asla Egialde
Jose Antonio Guirado Tristan
Josi Insausti Mujika
Pello Garaialde Goikoetxea
Jon Berbel Aiestaran
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Leire Lopez Zurutuza
Aimar Larrea Garin
Jose Luis Elorza Mugica
M^a Carmen Gomez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Julio Herreros Serna
Jorge Juan Outeiral Fernandez

ETORRI GABEA: Arantza Aseginolaza Azkargorta

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA.

2002ko matxoaren 21eko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA (4. HA eta 8. S)

Alkate jaunak, Patxi Plazaola hirigintza batzorde-buruari hitza eman eta honek gai-zerrendako puntu ezberdinen proposamenaren berri eman du:

- a- Aurrekarietikiko aurkeztutako alegazioa ebaztea eta irizpide eta irtenbideak onartzea.

“HIRIGINTZA BATZORDEKO PROPOSAMENA

AURREKARIAK

4. Hirigintza Arearekiko eta 8. Sektorearekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketaren Aurrekariari buruz 2001eko abenduaren 19an hirigintza-batzordeak egindako proposamenaren ondorioz, Planeamendu Erregelamenduaren 125. artikulua dioena betez, aipatu dokumentua jendaurrean jarri zen 30 eguneko epean eta 2002ko urtarrilaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2001eko abenduaren 28ko Euskaldunon Egunkarian eta 2002ko urtarrilaren 2ko El Diario Vascon iragarkiak argitaratu ziren.

Legez ezarritako epean Manufacturas Olan S. A. ren ordez, Manuel Jimenez Muelas jaunak sinatutako alegazioa aurkeztu zen, ondorengo sabai eraikigarria eskatuz:

Etxebizitza libreak: 8.858 m²
Babes Ofizialeko etxebizitzak: 1.760 m²
Merkataritza-aretoak: 620 m²
Garajeak: 4.651 m²
GUZTIRA: 15.889 m²

2002ko apirilaren 3an, udaleko arkitektoak, aurkeztutako alegazioari buruzko txostena eman zuen zati batean alegazioa onartuz.

Horren ondorioz, Planeamendu Erregelamenduaren 125.3 artikulua xedatutakoa betez, Udalbatzari, gehiengo absolutuarekin onartu beharreko (ELOLEaren 47,3i artikulua), ondorengo proposamena egiten zaio:

Lehenik. Aurkeztutako alegazioa zati batean onartzea, jarraian adierazitako aprobetxamendu-baldintzak aldatuz.

Bigarren. 4. Hirigintza Arearekiko eta 8. Sektorearekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa lantzeko behar diren irizpide eta irtenbideak onartzea. Irizpide eta irtenbide horiek hauek izango dira:

- 4. Hirigintza Areako 4.1 EUko etxebizitza eta garajeei emandako gehienezko aprobetxamendu-azalera berrikusi egingo dira eta bermatuko egingo da azalera hori, babes ofizialeko 20 etxebizitzetan bananduko dela duintasun-egitarau batean arabera.

Aprobetxamendua honela banatuko da:

	Sabai eraikigarria	Hom. Koe.	Sabai erai. Homog.	Azalera emaitza	Batez best. aprobet.
Etxebizitza	<u>Librea</u> 8718	1	8.718		
	<u>BOE</u> 1900	0,75	1.425		
Aretoak	895	1,4	1.253		
Garajeak	6.942	0,5	3.471		
Guztira	18.455		14.867		
Azalera garbia				5.982	
Batez besteko ap.					2,485

- 8. Sektoreko eremu berrian Sasieta Mankomunitateko Sistema Orokorreko instalazioen gaur egungo okupazioa mantendu egingo da.
- 8. Sektore berrian lurzati zehatz baten lagapena aurreikusiko da, Sasieta Mankomunitateko instalazioak handitzeko.
- 8. Sektoreari emandako gehienezko aprobetxamenduen azalera berrikusi egingo da:

**Sotoa
BO
Tarteko oina**

Eraikitako metroak
7.260 m²
14.520 m²
7.260 m²

	Gehienezko sabai eraikigarria
8. S	29.040 m ²
6. S. O.	2.000 m ²

- 8. Sektoreari Kudeaketa-baldintzetan ezarri egingo zaio, egingo den hirigintza-lana etorkizunean mantendu behar izatea.

Hirugarren. Erabaki honen berri idazketa-taldeari ematea, hasierako onespenerako dokumentua presta dezan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

b.- 4 HAKo eta 8. Sektoreko Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespena ematea.

“AURREKARIAK

4. Hirigintza Area eta 8. Sektorearekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa lantzeko behar diren irizpide eta irtenbideak onartzeko Udalbatza Osoari proposamena egin zaio eta onartu egin dira.

Horren ondorioz eta Planeamendu Erregelamenduaren 125. artikulua eta ondorengoek diotenaren arabera, Udalbatzari ondorengo akordio-proposamena egiten zaio:

Lehenik. 4. Hirigintza Area eta 8. Sektorearekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespena ematea, dokumentuak onartutako irizpide eta irtenbideak jasotzen dituelako.

Bigarren. Espedientea hilabeteko epean jendaurrean jartzea, iragarkia GAOn eta El Diario Vascon eta Eguskaldunon Egunkarian argitaratuz, interesatuek alegazioak aurkeztu ahal izateko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

c.- Manufacturas Olan S. A.rekin sinatu beharreko hitzarmenaren edukia onartzea.

Hitzarmenaren edukia ezagutzera eman da:

“Beasainen, 2002ko ...

BILDURIK:

Alde batetik, Jon Jauregi Bereziartua, Beasaingo Udaleko Alkate-Lehendakaria, 15.976.263-A NA-zk. duena, Beasaingo Udalaren ordezkari eta bere izenean.

Beste aldetik, Francisco Jimenez Perez Muelas, Manufacturas Olan S. A.ko Zuzendaria, 23.196.754 NA-zk. duena, Manufacturas Olan S. A.ren ordezkari.

ONDORENGOA AITORTZEN DUTE:

Manufacturas Olan S. A.k, gaur egun Beasaingo Arau Subsidiarioetako 4.1 orubea osatzen duen, bere jabetzako lursailak saltzeko asmoa du, hirigintza-garapena emateko. Aldi berean, bere enpresako jarduera berrinstalatzeko, 2.970 m²-ko lurzorua (etorkizunean orube eraikigarria) eta beste 925 m²-koa pabilioiarentzat, erreserbako lurzoru industrial eraikigarritan erosi nahi du.

Horretarako, Beasaingo Udalak Arau Subsidiarioak puntualki aldatuko ditu, hala nola, 4. Hako 4.1 orubea, bertan 82 etxebizitza libre eta 20-21 babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko eta 8. Sektorera lurzoru industrial hiritargarria berriro sailkatuz.

Hau guztia buru dadin, bi aldeek HITZARMENA sinatuko dute, alde aurretik izandako negoziazioen arabera puntu hauek jasoz:

- 1) Aipatutako hitzarmen hori sinatu aurretik, Manufacturas Olan S. A.k kreditatu egin beharko du, lursailen erosketa-akordioa burutu izana, bere jarduera 8. Sektorera lekualdatzeko.
- 2) Beasaingo Udalak aipatutako aldaketak izapidetuko ditu eta behin betiko onospena emango die behar diren dokumentuei (Konpentsazio-proiektua, Hirigintza-proiektua, Xehetasunezko Azterlana, ...)
- 3) Beasaingo Udalak, Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala behin betiko onartzen denean, 4. Hako 4.1 EUan 1, 2, 3 eta 7 atariak eraikitzeko baimena emango du nahiz eta Manufacturas Olan S. A.ren erauzketa egin gabe egon, izan ere horiek eraikitzeko aurreikusita

dagoen tokia ez baitute oztopatzen egungo Manufacturas Olanar S. A.ren eraikinak eta instalazioek.

4) 4.1 EU eraikitzekeo ekitaldien garapena ondorengoa izango da:

1. ekitaldia

1 eta 2 ataridun etxeak eraikitzea eta hirigintza osagarria egitea.
Lizentzia eskatzeko data: Arau Subsidiarioen aldaketa behin betiko onartzen denetik zenbatuta, sei hilabete baino lehenago.

2. ekitaldia

3, 7 eta 8 ataridun etxeak eta hirigintza osagarria egitea. Hirigintza-lan horren barne 3 eta 4 ataridun etxeen artean dagoen gune librekoa egongo da. Manufacturas Olanar S. A.ren pabilioiaren erauzketa egin ez bada, ekitaldi horretan 3 eta 7 ataridun etxeak egingo dira.
Lizentzia eskatzeko data: lehenengo ekitaldirako lizentzia ematen denetik zenbatuta eta hemezortzi hilabete lehenago.

3. ekitaldia

4, 5, 6, 9 eta 10 ataridun etxeak eta 4. HAKo 4.1 EUko hirigintza bukatzea.

Lizentzia eskatzeko data: bigarren ekitaldirako lizentzia ematen denetik zenbatuta eta hemezortzi hilabete lehenago.

Manufacturas Olanar gaur egun okupatzen duen orubean etxebizitzak egin ondoren, lehenik lehen erabilerarako baimena babes ofizialeko etxebizitzetara emango zaie.

5) Beasaingo Arau Subsidiarioetako 4.1 EUko behin betiko aprobetxamenduen datuak gutxienez ere hauek izango dira:

- Arearen gutxi gorabeherako azalera: 5.982 m²
- Eraikitzekeo gehienezko azalera: 18.455 m²
- Gehienezko etxebizitza libreen kopurua: 82
- Gehienezko babes ofizialeko etxebizitzaren kopurua: 20-21
- Etxebizitza libreetan eraikitako azalera: 8.718 m²
- Babes ofizialeko etxebizitzetan eraikitako azalera: 1.900 m²
- Profil eraikigarria: SO + BO + 4Oetik 6Ora (1) + TO

(1) 3, 4, 7 eta 8 ataridun etxeetan.....40

2 eta 5 ataridun etxeetan.....	50
1 eta 6 ataridun etxeetan.....	60
9 eta 10 ataridun etxeetan.....	50 (BOE)

- Teilatu-hegala: 1,2 metro
 - Teilatuaren malda handiena: 30 gradu
 - Hegalkin ireki handiena: 0,80 metro
 - Hegalkin itxi handiena: metro bat
- 6) 4.1 UE n garatu beharreko hirigintza-izapidea ondorengoa izango da:
- 4 HAKo Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala.
 - Konpentsazio-proiektua.
 - 4.1 EUko Xehetasunezko Azterlana.
 - Ekitaldi bakoitzerako eraikitze-proiektua, dagokion hirigintza osagarriarekin.
- 7) Manufacturas Olan S. A.k, zehaztuko den azalera eta lekukotasunarekin lur-zati bat lagako dio Udalari. Lagapen hori Arau Subsidiarioen aldaketak betebeharrak ezartzen badu burutuko da, 4.1 UE n etxebizitzaren kopurua handitzearen ondorio gisa.
- 8) Babes Ofizialeko etxebizitzaren esleipena Beasaingo Udalak egingo du eta zentzu horretan etxebizitza-esleipendunen zerrenda 9 eta 10 ataridun etxeen sustatzaileari entregatuko dio.
- 9) Manufacturas Olan S. A.k bere enpresa-jarduera 8. Sektore berrira lekualdatuko du, 2004ko ekainaren 30a baino lehen.
- 10) Manufacturas Olan S. A.k 8. Sektorean garatu behar duen jarduera, gaur egun garatzen duenaren berdina izango da. Lekualdaketa egiten denetik gutxienez ere bost urteko epean. Jarduera hori ezin garatu ahal izango du Manufacturas Olan S. A. ez den beste enpresa batek. Pabilioi berria eraikitzeko lizentzia eskatzeko garaian, Manufacturas Olan S. A.k, Jabetza Erregistroan bere izenean inskribatutako lursail-jabetzaren titulu-inskripzioa aurkeztuko du eta horrekin batera, aipatutako baldintza jasoko du. Aldi berean, gutxienez ere esandako epean, enpresak egungo plantila mantentzeko konpromisoa hartuko du.
- 11) 4.1 UEk Udalari ordaindu beharreko %10aren aprobetxamendua, 351.390 eurokoa izango da. Garajeetako bigarren sotoa egiten bada, Udalari ordaindu beharreko aprobetxamendua 364.933 eurokoa izango da.

Eta guztiaren adostasun frogatzat bildutakoek dokumentu hau bikoizturik sinatu dute goian aipatutako data n eta lekuan.

Beasaingo Udalaren aldetik
Sinatua: Jon Jauregi Bereziartua

Manufacturas Olan S. A. ren aldetik
Sinatua: Fco Jimenez Muelas”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

3.- BIDE-GARBIKETA

Bide-garbigeta mekanizatuko zerbitzua eta antzeko beste zerbitzu batzuk kontratatzeke deialdia eta baldintza administratibo eta teknikoak onartzea.

Alkate jaunak zerbitzu eta landa-ingurune batzorde-buruari hitza eman eta berak proposamenaren berri eman du:

“Denok dakizuen bezala Beasaingo Udalak Beasaingo kale-garbigeta zerbitzua berritzea onartu zuen. Orain helburua zera da: Beasaingo biztanleen bizi-kalitatea hobetzea. Horretarako baldintza-plegu bat prestatu da eta bertan ondorengo aurreikusten da:

- 1- Kale-garbigetarako zerbitzu mekanizatua.
- 2- Garbigeta sarriago egitea, baita larunbat, igande eta jai-egunetan ere.
- 3- Udal-langileen bajak, oporrak, etab. betetzea.

Halaber esan behar da, egun dauden lanpostuak mantendu egiten direla. Proposamen hau ez da itxia, apustua baizik, herria zabaltzen eta hazten ari delako (18. HA eta 1.S). Guk uste dugu mekanizazio honekin helburua bete egingo dugula.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

PP eta PSE-EE/PSOeko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Andoni Antxia jaunak (Batasuna): “Lehenik esan, proposatzen diren baliabide teknikoak gehiegizkoak direla. Gure ustez behintzat Beasainek eskatzen duen kale-garbigetarako ez dira oso egokituak. Zortzi urteko kontratazio-epea luzea iruditzen zaigu, zeren eta batzuetan, paperetan jasotzen diren xehetasunak, praktikan ez dira betetzen. Horretaz badugu esperientzia orain zortzi urte egindako kontratazioarekin. Egia da epea luzea izanda,

makineria errazago amortizatzen dela, baina behin kalteetan sartuta, zortzi urte pasatu arte itxaron behar badugu, nork amortizatzen ditu kalte horiek?. Langileena ere ez dugu erabat ziurtatuta ikusten, lan batzuk egiteko lanpostu-aldaketa batzuk eman litezkeela ikusita, adibidez, kale-garbiketarik udaleko beste zerbitzuetara pasatzen ari direlako. Epe horretarako ez da bermatzen udaleko langileak espresuki zerbitzu horretan egongo direnik. Hori guztia dela eta gu proposamen honen aurka azalduko gara.”

Pello Garaialde jaunak (EAJ/PNV-EA): “Nik ere pentsatzen dut epea luzea dela, baina egin behar diren inbertsioak amortizatu egin behar dira. Kontratazio-epea laburragoa izan daiteke, baina kostua ere handiagoa izango litzateke. Pertsonalaren aldetik pentsatzen dugu momentuz daukagunarekin konponduko garela. Beste udaletan ere zortzi urteko epea jartzen da.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Lehiaketa guztietan betebeharrak batzuk jartzen dira eta betetzen ez badira, emakida bertan behera uzteko aukera dago. Hori egiteko bi aukera daude: ordu arte amortizatu dena deskontatu eta falta dena ordaindu edo berriz lehiaketa atera eta adjudikatzen zaion enpresari makinaria hori hartzea exijitu.”

Andoni Antxia jaunak (Batasuna): “Epe luzea iruditzen zaigu, ez baitzaigu iruditzen baldintzak azaltzen diren moduan beteko direnik. Kale-garbiketan ez dugu gehiegikerietan ibili behar. Proposatzen den mekanizazioa gehiegizkoa da.”

Pello Garaialde jaunak (EAJ/PNV-EA): “Posible da gehiegi izatea, baina horrela bada murriztu egin beharko dugu. Guk orain egin dugun apustua zerbitzu mekanizatuarena da, baina pertsonak kontratatzen baditugu, zer egiten dugu gero zerbitzua gehiegizkoa suertatzen bada?”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)
Aurkako botoak: 4 (Batasuna)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. “Beasaingo Udalerrian bide-garbiketa mekanizatuaren zerbitzu publikoa eta antzeko beste zerbitzu batzuk kontratatzeko” deialdia, lehiaketa eta prozedura irekiaren bidez egitea.

Bigarren. Lehiaketa arautuko duten baldintzak eta plegu ekonomiko, administratibo eta tekniko onartzea.”

4.- ENIRIO-ARALARKO MANKOMUNITATEA. Mankomunitateko basoetan dagoen herrien arteko zatiketa.

Nahiz eta proposamena zerbitzu- eta landa-ingurune batzordetik etorri, Alkate jaunak, Patxi Plazaola jaunari eman dio hitza, Enirio-Aralarko Mankomunitatean Beasaingo Udaleko ordezkaria bera delako.

Patxi Plazaola jaunak, proposamenaren berri eman du:

“MANKOMUNITATEKO BASOETAN DAGOEN HERRIEN ARTEKO ZATIKETA
KONPONTZEKO PROPOSAMENA

Jakina da Mankomunitateko basoak (hegaladura) herrien artean banatuta dauzkagula, hori guztia 1821eko azaroaren 22an hartutako erabakiaren arabera Adiskidetasun Eskrituraz, hau da, berriro landatzeko modukoak ziren hainbat eremuetako hegaladura zatitzeko. Urteak dira egoera horri buelta eman behar zaiola pentsatuz gabiltzala eta ez gara oraindik banaketa hori konpontzera iritsi.

- Baso-aprobetxamendua 1821. urtean banatu zenean, 1.110 Ha. zuhaitzi genituen, orain 650 Ha. besterik ez da geratzen, eta horiek, orduan markatu zireneko lote batzuetan bakarrik geratzen dira, eta horietan ere, desberdin banatuta.
- Baso horiek egurretan duten balioa herrietako loteen artean nola banatzen zen jakiteko, IKT enpresak 1994an balorazio osoa egin zuen (452.461.000 pta.) eta bere banaketa, herri desberdinen zatien artean, ondorengo koadroan ikusi daitekeena zen:

Abaltzisketa	%13,71	Gaintza	%9,60
Amezketeta	%17,83	Itsasondo	%1,82
Altzaga	%0,91	Lazkao	%9,38
Arama	%0,91	Legorreta	%5,28
Ataun	%8,25	Ordizia	%5,40
Baliarrain	%3,33	Orendain	%6,66
Beasain	%2,92	Zaldibia	%10,67
Ikaztegieta	%3,33	GUZTIRA	%100

- Esan beharrik ez dago, balorazio oso hori ez dela dirutan gauzatzeko modukoa. Gainera, badakigu basoaren balioa ezin dela egurraren baliora soilik mugatu eta denen eskuetan dagoela horren balio ekologiko eta

ekonomikoa mantentzea eta handitzea, Mankomunitateak interes publikoa duten mendiak zaintzeko neurriak hartzen baditu, behintzat.

- Bestalde, basoak, herri guztienak izan daitezzen eta guztiek modu berean edo antzekoetan parte har dezaten, herri guztien arteko irtenbidea bilatzea komeni dela uste dugu.
- Mankomunitateko basoak Aralar Parke Naturalaren barruan daude eta, arrazoi ekologikoak medio, zuhaitzen mozketa mugatu egiten da, are gehiago, egun dauden baso guztiak Lareoko urtegiaren arroan kokatuta baitaude.
- Gainera, irailaren 5eko 80/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako basoak zaindu, hobetu eta ugaritzeko laguntza arauak ezartzen dituenak, aukera ematen du, ekologia, berezitasun edo paisaiako arazoiek eraginda, zuhaitzen mozketa mugatze arren dirulaguntzak jasotzeko.
- Horretarako, Nekazaritza eta Ingurumen sailarekin kontratu bat hitzartu beharko litzateke, izan ere, urteko eta hektareako 19.966 pezetaraino (120,00 euro) irits daitezkeen dirulaguntzak aurreikusi baitira, hitzarmenak irauten duen denboraldian zeharrerako.

Hau guztia ikusita, honako hau erabakitzea proposatzen da

PROPOSAMENA

A.- Mankomunitateko kide diren herriei 1821eko azaroaren 22ko Adiskidetasun Eskritura bidez emandako, baso-aprobetxamendurako gai ziren eremuen, erabaki honen azalpen atalean aipatutako ehunekoen arabera hegaldura-zatiketa, bertan behera indarririk gabe uztea, .

Horren ondorioz, “Uniones de Amezqueta y Villafranca de Oriak” dituen Enirio-Aralarko mendien helburu, gaur egun dituen eta etorkizunean izango dituen aprobetxamendu guztiak izango dira, hegaldura eta birlandatzeko eskubidea barne, eta Estatutuen 3 eta 4. artikulua ildo horretatik aldatuko dira.

B.- Horretarako, azaldutako balioetan egun dauden desberdintasun ekonomikoak berdintzeko bideak jarriko dira, aurrez aipatutako balorazioaren arabera, eta Foru Aldunditik jasotzea espero diren dirulaguntzekin orekatuko dira, dagokion araudiaren arabera ondorengo modu honetan:

1.- Herri bakoitzak modu berean parte hartzeko, %7a jarri da mugatzat (%6,66 borobiltze arren), eta konpentsazio ekonomiko hori banatzerakoan, herri guztiek ehuneko hori edo beheragokoa utzi egingo lukete, baldin eta beren partaidetza txikiagoa izango balitz.

2.- %7tik gorako partaidetza duten herriei ze ordaindu behar duten erabaki, baso-aprobetxamenduetan duten partaidetza osorainoko gainerako ehunekoari dagozkion dirulaguntzak kobratzeko eskubidea, eta gainerako ehuneko hori 2.719.345 euroen (452.461.000 pta.) balorazioari aplikatuko zaio; hona hemen xehetasunak:

Abaltzisketa	6,71%	182.468 euro	30.360.120 pta
Amezketeta	10,83%	294.505 euro	49.001.509 pta
Ataun	1,25%	33.992 euro	5.655.793 pta
Gaintza	2,6 %	70.703 euro	11.763.990 pta
Lazkao	2,38%	64.720 euro	10.768.502 pta
Zaldibia	3,67%	99.800 euro	16.605.323 pta
GUZTIRA		746.188 euro	124.155.237 pta

3.- Diru horiek lortzeko, Foru Aldundiarekin behar den kontratuA sinatzea, laguntzak era honetan zehaztuta:

Mankomunitateak dituen 650 Ha basoengatik, laguntza 120 euro Ha eta urteko izanda, urteko 78.000 euroko dirulaguntza jaso beharko luke gehieneko kopuruak hartuz gero.

Hori horrela, kontratua 10 urterako eginez gero, 780.000 euro lortuko liriteke; horietatik 746.188 euro aipatu den bezala banatuko liriteke eta hortik gorakoa Mankomunitaterako geldituko litzateke.

Urteroko kopuruak txikiagoak izango balira, 10 urteko epea luzatu egin beharko litzateke, herrien eskubideak likidatu arteko denboraz eta aurreko koadroaren arabera.

C.- “A” atalean erabakitakoa Foru Aldundiarekin aipatutako kontratua gauzatzen den unean bertan jarriko da indarrean, eta une horretan bertan bihurtuko da Mankomunitatea baso-hegalduren jabe, gaur egungoaren eta etorkizunekoaren jabe alegia eta birlandatzeko eskubidea izango du; loteek erreferentzia historikoa besterik ez dute izango.

D.- Lehendakari andreari ahalmena ematea erabaki hau betetzeko behar diren agiriak gauza ditzan.

E.- Erabaki honek eraginkortasun osoa izan dezan, Enirio-Aralarko Mankomunitatea osatzen duten herri guztiek Osoko Bilkuretan hartutako erabakiz berretsi beharko dute, bakoitzak bere udalean, jakina.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, batzarraldia arratsaldeko zortziak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.